

IL ULERMEN PROBA • *Gorrotoa lege*

Izen-deiturak Taldea

- > Markatu (X) erantzunak (50) test laukietan: E F edo A B C D. Utzi bi.
- > Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik* (*Zutabe bat osorik markatu ezean)

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		/ 50
Kalifikaz.		/ 10

1. Egileak 3. pertsonan eta lekuko gisa narratzen du istorioa.
2. 1425ean Butroetarrek Otxandiori eraso egin zioten eta bertako biztanle guztiak hil, Presebal izan ezik.
3. Oñaz eta ganboarrek lurralde banaketa garbi bat zuten: Bizkai osoa oñaztarrena zen eta Gipuzkoa osoa ganboarrena. Aramaio ere oñaztarrena zen.
4. Mungia aldea Jaun Peru Abendañokoren eremua zen, baina Gomiz Onzalutxek eskuratu zuen bi gudu odoltsuren ondoren.
5. Jaun Gomizen seme zaharrena, Jaun Eneko, Mungiako Madalen Orti Billelakoarekin ezkondua zegoen.
6. Begi Urdinak hiru seme-alaba zituen: Mari Gabon, senarragandiko alaba; bi seme Gomiz Onzalutxekin.
7. Egileak narrazioa eta deskribapena erabili ditu istorioa kontatzeko. Ez dago elkarriketarik.
8. Butroeko jaunak zazpi seme-alaba zituen: bost emaztearengandik eta besteak Begi Urdinarekin.
9. Butroera eginiko bisitaldian Jaun Matxin Olasoko eta Onekaren ezkontza finkatu zen.
10. Jaun Peru Abendañok Begoñako dorretxea eraso eta suntsitu zuen eta bertan Onzalu, Butroeko jaunaren semea hil.
11. Begoñako sarraskiaren ondoren Gomiz Onzalutxek Jaun Peruren Lekutioko gazteluari eraso zion.
12. Autoreak esaten digu istorioaren garaian elkarriketak ez zirela hika egiten, beti zuka baizik.
13. 1444an, mendekuz, Butroetarrek Larrabetzuko dorretxea hartu zuten eta bertako biztanle guztiak hil.
14. Jaun Gomizek ez zion inolako ordainik eman nahi izan Otxoa semeari, hau guduan adoretzu aritu arren.
15. Mari Urtiz, Jaun Matxinen ama, pozarren agertu zen hasiera-hasieratik, bere semea Onekarekin ezkonduko zela jakitean.
16. Aramaioko Ibarra jauregian bizi zen Begi Urdina, Jaun Gomizen maitalea.
17. Jaun Gomiz Aramaioko bere menpeko jaunekin (Jaun Iakue eta Jaun Petri) haserretzera iritsi zen zergen banaketagatik.
18. Otxoak aita hil nahi izan zuen, baina alde egin behar izan zuen Butroetik lortu gabe.
19. Lekutioko gazteluan, Otxoak, Arexola eta Baraxuengo jaunek eta Jaun Peru Abendañok elkarlaguntzarako itun bat lortu zuten.
20. Jaun Peru eta Baraxuengo Jaun Petri ados jarri ziren Otxoa Butroeko hiltzeko: Jaun Peruk berak hil zuen Otxoa.
21. Jaun Peruk Aramaioko Mendiola eta Ibarra jauregiak hartu zituen, azken hau Begi Urdinaren laguntzaz.
22. Joan Latzek hil zuen Arexolako jaunaren anaia ere: Jaun Bikendi.
23. Baraxuengo Jaun Petrik, Joan Latzen aitak, Arexolako Jaun Iakueri sinesterazi zion Mendiolako Jaun Estibariz eta kapitain bat izan zirela Otxoa eta Jaun Bikendiren hiltzaile.
24. Jaun Estibariz Mendiolakoa Jaun Peruren gudarosteak bere gazteluari eraso egitean hil zen, 1445ean.
25. Mendiolako eta Ibarra jauregiak hartu ondoren, Begi Urdina Jaun Perurekin joan zen bizitzera.

	E	F
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21		
22		
23		
24		
25		

26. Guduan aita eta gaztelua galdu ondoren, Jaun Estibariz Mendiolakoaren semeak jakin izan zuen zerbitzari baten bidez nortzuk izan ziren Otxoa eta Jaun Bikendiren benetako hiltzaileak.
27. 1448an, mendekuz, Arexolako jaunak eta Domiku Gorriak, zerbitzari baten laguntzarekin, Jaun Petri eta Joan Latz aita-semeak hil nahi izan zituzten, baina ez zuten bat ere hiltzea lortu.
28. Aurrekoaren ondorioz, Arrasateko alkate ganboarrak Jaun Iakue eta beste zaldun butroetar batzuk atxilotu zituen.
29. Arrasateko alkateak agindutako atxilotetak zirela eta, hiria hartu zuen Gomiz Onzalutxek, hango biztanleen laguntzarekin.
30. Gomiz Onzalutx Arrasatez jabetu ondoren, Jaun Peruk ahalegin berezi bat egin zuen, pertsonalki, Jaun Matxin Olasokoaren laguntza lortzeko, hiria bereganatzeko.
31. 1448ko ekainean hasi zen Arrasateko gudua: hiri barnean Gomiz Onzalutx 1.500 bat gudarirekin; kanpoan Jaun Peru Abendaño eta kideak zortzi-hamar milarekin.
32. Abendañotarrek Arrasateko hiria lehenbailehen hartu nahi izan zuten, hainbeste gizon mantentzeko probisio arazoak izan zitzaizketelako.
33. Arrasateko harresiak gainditzeko hiru saio handi egin zituzten ganboarrek baina ez zuten lortu barrura igarotzea.
34. Arrasateko Otxoa Artazubiko alkateak bere erabateko ezadostasuna azaldu zuen Jaun Peruk hiriari su eman behar zitzaiola adierazi zuenean.
35. Jaun Matxin harresietako irteera batean kokatu zen, Madalenako atean, sutetik ihes zihoazenei laguntzeko.
36. Madalenako atea irekitzean, Eneko (Jaun Matxinen anaia) barrura sartu zen, Gomiz Onzalutx aurkitu eta Jaun Peru Abendañoaren eskutitz bat emateko.
37. Gomiz Onzalutx eta bere taldekideak, Madalenako aterantz zuzendu zirenerako Jaun Txeru Beleiz aldatua zegoen ate horretara: errenditu egin ziren baina hil egin zituzten, hala ere.
38. Arrasate erre ondoren, epaitu egin zituzten ganboarrak eta asko kondenatu, baina erbestera aldeginak zeuden gehienak. Jaun Matxin libre geratu zen.
39. Joan Latz ez zuten kondenatu, Jaun Matxinek bere alde hitz egin zuelako.
40. Arrasatekoaren ondoren, Jaun Eneko Muxikako zen Butroeko nagusia eta berarengana jo zuen Joan Latzek; aliatu egin ziren.
41. Joan Latzen laguntzarekin Aramaio berreskuratu zuen Jaun Enekok: dorretxeak sendotu zituen eta Mari Gabon ohaidetzat hartu zuen.
42. Bere errugabetasuna frogatuta, Jaun Matxin Ganboakoak Onekari idatzi zion ezkontza eskea egiteko, eta Andre Elbira eta Jaun Enekoren oniritzia jaso zuen.
43. Arrasaten gertatuaz mendekatzeko, Jaun Enekok Mondragoeko Otxoa Artazubiko alkatea hiltzeko agindua eman zuen: Itxusko eta Burdek bete zuten zeregina.
44. Burde hilketa-susmagarritzat harrapatu zuten eta, bere aitortzaren ondorioz, Jaun Eneko ere espetxeratu egin zuten.
45. Mari Gabonek harreman estua izan zuen Joan Latzekin Jaun Eneko ikusi gabe egon zen denboraldi luzean.
46. Joan Latz matxinatu eta Aramaioz jabetu ondoren, Jaun Matxinen laguntza izan zuen Jaun Enekok Ibarra berreskuratzen.
47. Jaun Eneko Anaiartek hil zuten Aramaion eta ibar hau berriz galdu zuten butroetarrek.

	E	F
26		
27		
28		
29		
30		
31		
32		
33		
34		
35		
36		
37		
38		
39		
40		
41		
42		
43		
44		
45		
46		
47		

	A	B	C	D
48				
49				
50				
51				
52				

48.	Eleberriaren hasieran, zertara doa Jaun Matxin Olasokoa Butroera?	<ul style="list-style-type: none"> a) Jaun Estibariz Mendiolakoak bidaiarako laguntza eskatu ziolako, erasoetatik babesteko. b) Jaun Matxinek ganboarren bake proposamen bat darama Butroeko jaunarentzat. c) Butroeko familiako alabarekin ezkontzeko, Onekarekin hain zuzen. d) Olasokoa ganboarrek Aramaio hartzeko dituzten asmoen berri eman nahi dio Butroekoari.
49.	<p><i>Ondorengo egun batean, Mungiako iskribauaren aitzinean, hiru zatidun itun bat sinatu zuten.</i></p> <p><i>Lehenengo: elkarri ez erasorik egitekoa; bigarren: Butroeko eta Olasoko gazteluei edozein etsaik erasorik eginez gero eta laguntza beharrean aurkituz gero, elkarri laguntzekoa; hirugarren: inorekin ez trataturik egitea eta ez kargurik hartzea elkarren berri jakin gabe.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Jaun Gomiz Onzalutxek eta Mungiako Jaun Orti Saontx Billelakoak eginiko tratuari dagokio. b) Butroeko jaunaren eta Jaun Matxinen akordioari dagokio, Onekarekin ezkontzeko asmoa adierazi ondoren. c) Jaun Estibariz Mendiolakoak eta Olasoko Jaun Matxinek eginiko tratua aipatzen da zatian. d) Onekarekin ezkondu ahal izateko, Jaun Matxinek, beharturik, sinatu behar izan zuen akordioari dagokio.
50.	<p><i>Gomiz Onzalutx sor eta lor geratu zen mintzaldi haren ondoren, zeren ez baitzuen pentsatzen bere seme bat –semerik kementsuena eta saiatuena–, asalda zekiokenik...</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Jaun Gomiz Jaun Eneko semearekin haserretzera iritsi da, honek ez baitio barkatu Madalen Ortirekin ezkontzera behartu izana. b) Butroeko jauna eta 'Burde' ari dira eztabaidan, azken honek hilketa eta sarraski ugari egin baititu. c) Otxoak aita hiltzeko saio bat egin du eta hau harriturik geratu da. d) Gomiz Onzalutx eta Otxoaren arteko liskarrari dagokio pasartea, Otxoa ez baitago ados aitak eskaintzen dionarekin.
51.	<p><i>Baraxuengo tantaia bete zuen bere eginkizun tristea. Nahiago zukeen honek heriotze batekin bere egitekoa bukatu, eta horretarako ahaleginak egin arren, bere buruaren segurantzak biak hiltzea eskatu zion.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Larrabetzuko dorretxea suntsitzean butroetarrek egin zituzten hilketei dagokio zatia. b) 'Itxusko' eta 'Burde'k Mondragoeko alkatea eta berarekin zihoan Jaun Baladi ere hil zituzten. c) Joan Latzek Otxoa eta Jaun Bikendi Arexolako hil zituen uneari dagokio. d) Joan Latzek Jaun Eneko eta Mari Gabon hil ditu Ibarrako jauregian.
52.	<p><i>Aurreneko berrogeita hamar metroetan lurraren jaun eta jabe bakarrak bezala joan ziren lauhazka bizi batean baina, esandako bidea ibilitakoan, azkonak, geziak eta jabalinak, erauntsi ikaragarri baten irudi jausi zitzaizkien.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> a) Butroetar nagusiek Arrasateko hiritik, heriotzera, irten behar izan zutenekoa aipatzen da zatian. b) Jaun Peruren gudarosteari Mondragoeko harresiak gaintzea ezinezkoa egin zitzaiola kontatzen du. c) Abendañotarrek Begoñako Jaun Txordonen dorretxeari eraso ziotenekoa da. d) Jaun Gomizen gudarosteak Jaun Peruren Lekutioko gazteluari eraso zionekoa kontatzen da.